

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**AZKOITIKO UDALA**

*Iragarkia*

2016ko ekainaren 1eko Alkatetza Dekretu bidez honakoa erabaki da:

*Lehena.* Azkoitiko Alde Zaharrean hutsik dauden merkataritzako lokalak ekintzaileen bitartez berreskuratzeko programak garatzeko diru-laguntzak lehia araubidez emateko 2016 ekitaldiko deialdia onartzea.

*Bigarrena.* Aipatu diru-laguntzak emateko gastua onartzea ondokoaren arabera:

Aurrekontu partida: 1.8000.480.431.50.01.

Lokalen alokairurako diru-laguntzak: 20.000,00 €.

*Hirugarrena.* 2016 ekitaldiari dagokion deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaletxeko iragarki oholean, web orrian eta gardentasunaren atarian argitaratzea, ondoko edukiarekin:

**1. Diru-laguntzaren xedea:**

Diru-laguntzen Legearen 23.2 artikulua eta diru-laguntza hau arautzen duten oinarriek ezarritakoaren arabera, udal honek deia zabaltzen du Azkoitiko Alde Zaharrean hutsik dauden merkataritzako lokalak ekintzaileen bitartez berreskuratzeko programak garatzeko diru-laguntzak emateko.

**2. Diru-laguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak:**

Dagokion jarduera gauzatzeko lokal huts bat alokatzen duten edota jarduera baten erreleboa hartzen duten ekintzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Negozio bideragarri baten proiektua izatea, betiere 4. puntuari zehaztutako jardueraren batekin lotua.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.

c) Programa honetan parte hartzeko eskaera-inprimakia, beteta aurkeztuta izatea.

d) Honako dokumentu hauek atxikitzea: sustatzailearen curriculum eta jardueraren memoria-proiektua (horretarako eskualdeko agentzia den Iraurgi Lantzen S.A.k bere laguntza eskaintzen du).

Memoriak ondoko puntu hauek jaso behar ditu:

– Negozioaren asmoa zein den labur azaltzea.

– Egitasmoaren ezaugarri berritzaileak, merkatuari balio erantsia ematen diotenak eta besteekiko desberdintzen dutenak azaltzea.

– Proiektuak merkatuaren zer beharizan asetzen duen azaltzea. Negozioaren aukera azaltzea.

– Produktua edo zerbitzua zein publiko objektiboari bideraturik dagoen zehaztea; hau da, nor izan daitekeen bezero jakinaraztea.

**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

*Anuncio*

Mediante Decreto de Alcaldía de fecha 1 de junio de 2016 se ha acordado lo siguiente:

*Primero.* Aprobar la convocatoria del ejercicio 2016 para la concesión, en régimen de concurrencia competitiva, de subvenciones a emprendedores para el desarrollo de programas de recuperación de locales comerciales vacíos situados en el Casco Antiguo de Azkoitia.

*Segundo.* Aprobar el gasto para la concesión de las mencionadas subvenciones, según las siguientes determinaciones:

Partida presupuestaria: 1.8000.480.431.50.01.

Subvenciones para el alquiler de locales: 20.000,00 €.

*Tercero.* Publicar la convocatoria correspondiente al ejercicio de 2016 en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios, en la página web y en el Portal de Transparencia del ayuntamiento, con el siguiente contenido:

**1. Objeto de la subvención:**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 23.2 de la Ley de Subvenciones y en las bases reguladoras de esta subvención, este Ayuntamiento realiza una convocatoria, en régimen de concurrencia competitiva, para la concesión de subvenciones a emprendedores para el desarrollo de programas de recuperación de locales comerciales vacíos situados en el Casco Antiguo de Azkoitia.

**2. Requisitos para solicitar la subvención:**

Las personas emprendedoras que recuperen locales vacíos o promuevan el relevo generacional para desarrollar la actividad de que se trate, deberán cumplir los siguientes requisitos para acceder a las subvenciones:

a) Disponer de un proyecto de negocio viable relacionado con las actividades descritas en el punto 4.

b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias y en relación a la Seguridad Social.

c) El impreso de solicitud cumplimentado, para participar en este programa.

d) Entregar los siguientes documentos: currículum de la persona promotora y memoria-proyecto de la actividad (para ello, la Agencia Comarcal Iraurgi Lantzen S.A. ofrece su ayuda).

La memoria deberá recoger los siguientes puntos:

– Breve descripción del negocio.

– Explicar las características innovadoras y diferenciadoras del proyecto que aportan valor añadido al mercado y lo diferencia con relación a otros.

– Describir la necesidad del mercado que satisface el proyecto. Describir la oportunidad de negocio.

– Detallar el público objetivo, clientes potenciales, a los que se dirige el producto o servicio.

– Enpresak jardunean egingo duen lehen urtean zenbateko salmentak izango dituen aurreikustea edo gutxi gorabeherako estimazio bat egitea.

– Negozio-asmoa martxan jartzeko beharko diren baliabideak adieraztea: teknologia eta azpiegitura, giza baliabideak, finantza-baliabideak, etab.

– Sortuko den lanpostu-kopurua.

– Aurreikusitako emaitza kontua.

– Negozioaren ideia sustatzen duen taldeak ekintzaile izateko eta enpresa bat bideratzeko zer ahalmen eta gaitasun duen labor-labor zehaztea.

\* Epaimahai eskudunak (oinarrien 14. puntuan jasotzen da) baloratuko ditu aurrekutzako eskabide eta proiektuak.

### 3. Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Udaleko diru-laguntzaren esleipena lortu duen ekintzaileak, lokalaren jabearekin sinatzen duen kontratuaren iraupenak gutxienez hiru urtetakoa izan beharko du.

Diru laguntzaren ehunekoen eta gehienezko kopuruen taula:

Urtea	Ehunekoak	Gehienezkoa
1	%75	300,00 €
2	%50	250,00 €
3	%25	125,00 €

### 4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu.

Eskaerak Azkoitiko Udaletxean aurkeztu behar dira (Herriko Plaza, z/g) Herriarren arreta bulegoan eta jendaurreko ordutegian, 08:00etatik 15:00etara, 30 eguneko epean, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

### 5. Hautapen eta balorazio irizpideak.

Udalak ondorengo balorazioen arabera esleituko ditu diru-laguntzak:

a) Originaltasuna eta berrikuntza egungo eskariarekiko, gehienez 15 puntu.

– Udalak kontutan hartuko ditu ondoko hauek: jadanik daudden jardueretik berezitasunak, eta berrikuntzak, eta ekimenaren originaltasuna.

– Negozioak merkataritza-eskaerari zer ekarpen egingo dion ere kontuan izango da.

– Halaber, honako hauek baloratuko dira: ordutegia, zer egunetan zabalduko den.

– Aintzat hartuko da egitasmoak Azkoitiko identitate eta kulturarekiko duen erlazioa, Azkoitiari egiten dion ekarpena, bertako produktioarekin lotura, publikoa erakartzeko gaitasuna, azoka indartzeko ahalbidea, etab.

b) Aurreikusitako inbertsioa, gehienez 10 puntu.

Kontuan hartuko da denda zabaltzeko egin behar izan den inbertsio ekonomikoa.

Lokala eta instalazioak egokitzeko inbertitu diren 3.000,00 euroko (BEZ kontuan hartu gabe) puntu bat emango da, gehienez ere 10 puntu izango dira.

d) Sortutako lanpostuak, gehienez 10 puntu.

Proiektuan zenbat lanpostu sortu diren hartuko da kontuan. Sortuko den lanpostu bakoitzeko puntu bat emango da, gehienez ere 5 puntu izango dira. Ekintzailea edo kontrataturiko langilea/k aurretik langabezian baldin bazeuden eta herritarrak baldin badira, pertsona bakoitzeko puntu bat gehituko da. Herriar gisa ondoko hauek hartuko dira: azken 5 urteetan jarraian edo beraien bizitzaren %75a Azkoitian erroldatuta egon direnak.

– Estimar aproximadamente las ventas esperadas para el primer año de actividad de la empresa.

– Indicar los recursos necesarios (tecnología e infraestructura, recursos humanos, financieros, etc.) para la puesta en marcha de la idea de negocio.

– Número de empleos que se crearán.

– Cuenta de resultados provisional.

– Resumir brevemente las capacidades y aptitudes emprendedoras y empresariales del equipo promotor de la idea de negocio.

\* La valoración de las solicitudes y proyectos presentados se realizará por el tribunal competente (se recoge en el punto 14 de las bases reguladoras).

### 3. Cuantía de la subvención:

La duración del contrato de alquiler a firmar con el propietario del local por la persona emprendedora a la que se le haya adjudicado la subvención, tendrá una duración mínima de tres años.

Tabla de porcentajes y cantidades máximas de subvención:

Año	Porcentaje	Límite
1	75%	300,00 €.
2	50%	250,00 €.
3	25%	125,00 €.

### 4. Lugar y fecha de presentación de las solicitudes.

Los proyectos y solicitudes se presentarán en el Ayuntamiento de Azkoitia, Herriko Plaza z/g, en la Oficina de atención ciudadana en horario de atención al público, de 08:00 a 15:00, en un plazo de 30 días, a partir del día siguiente de la publicación de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

### 5. Criterios de selección y valoración.

La adjudicación de las subvenciones por parte del Ayuntamiento se ajustará a las siguientes valoraciones:

a) Originalidad e innovación respecto a la demanda existente, hasta 15 puntos.

– El Ayuntamiento tendrá en cuenta: las particularidades respecto a las actividades existentes actualmente y las novedades y originalidades de las iniciativas.

– También se tendrá en cuenta la aportación del negocio a la demanda comercial.

– Asimismo se valorarán: el horario, días de apertura.

– Así mismo se valorará la relación del proyecto con la identidad de Azkoitia y su cultura, aportación al municipio, relación con la producción local, capacidad de atraer al público, capacidad para potenciar el mercado, etc.

b) Inversión prevista, hasta 10 puntos.

Se tendrá en cuenta la inversión económica necesaria para la apertura final del comercio.

Se otorgará un punto por cada 3.000,00 € invertidos en la adecuación de local e instalaciones (sin computar el IVA), hasta un tope de 10 puntos.

d) Empleo generado, hasta 10 puntos.

Se tendrán en cuenta el número de empleos totales generados por el proyecto. Se puntuará con 1 punto por cada puesto nuevo de trabajo a crear, con un límite de 5 puntos. En los casos en los que la persona emprendedora o las personas trabajadoras contratadas estuvieran en paro y residan durante el plazo establecido en el municipio, se incrementará un punto por cada persona. Se considerará de Azkoitia, a quien lleve 5 años consecutivos o un 75% de su vida empadronado en Azkoitia.

e) Alokairuen prezioa, gehienez 5 puntu.

Ekintzaileek lokal komertzial hutsaren jabeen irizpideak beharrezko errenta, Udalak jasotako eta eguneratutako datuen arabera, m<sup>2</sup>ko finkatutako prezioa hobetzea, hau da, gutxitzea saritzen da. Finkatu den prezioa honakoa da:

- 10,00 € / m<sup>2</sup>ko, 45 m<sup>2</sup> baino gehiago dituzten lokalentzat.
- 13,00 € / m<sup>2</sup>ko, 45m<sup>2</sup> edo gutxiagoko lokalentzat.

\* Alokairurako prezio hauek gainditzen dituzten lokalak ez dira programa honen barruan kontutan hartuko. Udalak eta ekintzaileek egingo duten ahalegina lokal hutsen jabeen ahalegina eskatzen dute eta honetarako finkatutako batz besteko prezioetan alokatu beharko dituzte lokalak.

f) Proiektuak euskararekiko betetzen dituen irizpideak eta euskarak proiektuan izango duen presentzia, gehienez 5 puntu.

Proiektu berri bat aurkezterakoan, saltoki berriaren euskararekiko beteko diren irizpideak eta euskarak izango duen presentzia zehaztuko dira. Hizkuntzari dagokionez proiektu bakoitzeko ekintzaileak erabakiko du zerbitzua euskara hutsean edo elebitan eskainiko dion bezeroari.

Hizkuntza paisaia eta irudiari dagozkion ataletan ze egoera emango den zehaztu beharko da: enpresaren izena eta logotipoa, kanpoko errotulazioa, barruko errotulazioa (harrera lekuko, bulegoetako eta sailtetako errotuluak), lan arroparen errotulazioa, idazpapa eta zigiluak (enpresako zigiluak, orri-buruak, faxak, karpetak, gutun-azalak), txartelak (bisita txartel pertsonalak, bisitarietako txartelak), harrerako hizkuntza, webguneak, komunikazioa, marketina, enpresari buruzko informazioa, prentsako informazioa eta publizitatea, katalogoak, jendearen aurreko ekintzak, megafonia, langileen euskara maila, bezeroarekiko ahozko harremanak, bezeroarekiko idatzizko harremanak (fakturak, tiketak, oharrak, gogobetetze inkestak), administrazioarekiko (Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza) ahozko zein idatzizko harremanak, posta elektronikokoak eta jakinarazpenak, euskararen ahozko erabilera langileen artean eta enpresa barruan, enpresa barruko bileretan erabilitako hizkuntza, informatikako aplikazioak (ordenagailuak euskaraz eta beste aplikazio batzuk), sare sozialak (facebook, twitter...), etab.

Programa honen bitartez diru-laguntzak jasotzeko euskararen nolabaiteko presentzia ezinbestekoa izanik hau kontutan hartuko da eta aurreko paragrafoan agertzen den atalen zerrendan dauden horietan euskararen presentzia baloratuko da. Honi dagokionez proiektuak gehienez 5 puntu jasoko ditu eta programa honetarako aurkeztutako proiektuan euskarari dagozkion horiek jaso eta proiektua abiatzekoan ez betetzeak diru-laguntza bertan behera uzteko arrazoia izango da.

Ekintzaileek programa honetan jasotzen diren diru-laguntzez gain Udak Euskara Zerbitzutik ematen diren horiek jasotzeko aukera izango dute eta proiektua lantzerakoan baita hau martxan jarri ondoren euskara zerbitzuko teknikariaren aholkularitza eta laguntza izango ditu.

#### 6. *Epaimahai kalifikatzailea.*

Merkataritza eta Herrixen Merkataritza elkartearen teknikariak, Merkataritza Zinegotziarekin balorazioa egin, eta dakion Batzordean azalpenak eman ondoren, udaleko organo eskudunak erabakia hartuko du.

#### 7. *Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Eskariak ebazteko gehienez bi hilabeteko epea egongo da, eskariak jasotzeko jarritako epea amaitzen denetik, eta ordurako esan-bidezko ebazpenik ateratzen ez bada ezetsi direla ulertuko da.

e) Precio del alquiler, hasta 5 puntos.

Se valorará positivamente que el precio a pagar por la persona emprendedora al propietario del local se mejore a la baja en relación a los precios medios recogidos por el Ayuntamiento, que son:

- de 10,00 € / m<sup>2</sup> para los locales de más de 45 m<sup>2</sup>.
- de 13,00 € / m<sup>2</sup> para los locales de igual o menor a 45 m<sup>2</sup>.

\* Los locales comerciales que superen estos precios de alquiler no se tendrán en cuenta para este programa de ayudas. El esfuerzo a realizar por parte del Ayuntamiento y de las personas emprendedoras demanda también el esfuerzo de los propietarios, debiendo alquilar los locales para ello en coherencia con los precios que se fijan.

f) Criterios que cumple el proyecto en relación al euskera. Presencia del Euskera en el proyecto, hasta 5 puntos.

Al presentar un proyecto se concretarán los criterios que se cumplirán en relación con el euskera y la presencia que tendrá en la puesta en marcha y el día a día del mismo. Será la persona emprendedora quien decida si dará el servicio al cliente exclusivamente en euskera o lo hará en bilingüe.

Se detallará qué situación se dará en relación al paisaje lingüístico y a la imagen: nombre y logotipo de la empresa, rotulación exterior, rotulación interior (recepción, oficinas, apartados concretos), rotulación de la ropa de trabajo, material de papelería y sellos (sellos de empresa, encabezados de página, faxes, carpetas, sobres), tarjetas (tarjetas de visita personales, para clientes y visitantes), idioma de acogida, páginas web, comunicación, marketing, información sobre la empresa, información en prensa y publicidad, catálogos, acciones de dinamización, megafonía, nivel de euskera de los empleados, relación con clientes y proveedores (facturas, tickets, avisos, encuestas de satisfacción), relación con la administración (Ayuntamientos, Diputación, Gobierno Vasco) escrita y hablada, correos electrónicos y notificaciones, uso del euskera entre los empleados y dentro de la empresa, en reuniones internas de empresa, aplicaciones informáticas (ordenadores en euskera y otras aplicaciones), redes sociales (Facebook, twitter), etc.

Siendo imprescindible la presencia del euskera en el proyecto, de una u otra forma, esto se tendrá en cuenta de cara a la adjudicación de las subvenciones y se valorará el uso del euskera en cada uno de los apartados enumerados en el párrafo anterior. En lo que a esto se refiere el proyecto obtendrá un máximo de 5 puntos, debiendo concretar el proyecto a presentar el uso del euskera en la puesta en marcha del negocio y en el día a día del mismo. Una vez adjudicada la subvención e iniciada la actividad, el incumplimiento de lo recogido en el proyecto será motivo suficiente para la suspensión de la subvención.

Además de la subvención correspondiente a este programa de ayudas, la persona emprendedora podrá acceder a las ayudas del Departamento de Euskara del Ayto. de Azkoitia y para la puesta en marcha del proyecto podrá solicitar el apoyo del Técnico de Euskera.

#### 6. *Tribunal calificador.*

Los técnicos del Departamento de Comercio y de la Asociación de Comerciantes Herrixen valorarán las solicitudes presentadas. El Concejal de Comercio presentará dicha valoración en la correspondiente Comisión y posteriormente resolverá el órgano competente del Ayuntamiento.

#### 7. *Plazo de resolución y notificación.*

Se establece un plazo máximo de dos meses para la resolución de las solicitudes, a contar desde la finalización del plazo para la presentación de las mismas, y se entenderá que han sido desestimadas cuando transcurrido el plazo no se haya emitido resolución expresa.

8. *Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea.*

Udalaren diru-laguntzaren esleipena lortu duen ekintzaileak, errentaren ordainketari aurre egiteko jasoko duen laguntza ekonomikoa kobratzeko, hiruhiletik behin ordaindutako errenten ordainagiria aurkeztu beharko du Udaleko Erregistro Orokorrean, hiruhileko natural bakoitzaren ondorengo lehen 15 egunen barruan. Hiruhilero justifikatutako ordainketa bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoa gainditutako azken hiruhilekora jasoko du ekintzaileak.

9. *Araudia.*

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan arau hauek aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); eta Azkoitiko udalak Azkoitiko Alde Zaharrean hutsik dauden merkataritzako lokalak ekintzaileen bitartez berreskuratzeko programak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak (2016ko maiatzaren 20ko 95. zkidun Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak).

10. *Errekurtsoak.*

Deialdi honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo eskudunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Azkoitia, 2016ko ekainaren 1a.—Alkatea. (4076)

8. *Modo de pago de las subvenciones.*

La persona emprendedora que haya resultado beneficiaria de la subvención, para poder cobrar la misma para hacer frente a los gastos de alquiler del local, deberá presentar trimestralmente en el Registro General del Ayuntamiento de Azkoitia el justificante de pago de la renta correspondiente, en los 15 primeros días posteriores a cada trimestre natural. La ayuda económica correspondiente a cada trimestre justificado se abonará a trimestre vencido.

9. *Normativa.*

En todo lo no previsto en la presente convocatoria se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (*Boletín Oficial del Estado* 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* 25 de julio) y la bases reguladoras aprobadas por el Ayuntamiento de Azkoitia para la concesión de subvenciones a emprendedores para el desarrollo de programas de recuperación de locales comerciales vacíos situados en el Casco Antiguo de Azkoitia (publicadas en el *BOLETÍN OFICIAL* de Gipuzkoa de 20 de mayo de 2016 n.º 95).

10. *Recursos.*

Contra la presente convocatoria podrá interponerse en el plazo de un mes recurso de reposición ante el órgano competente que la haya aprobado, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria.

Azkoitia, a 1 de junio de 2016.—El alcalde. (4076)